

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko apirilaren 9 IV.urtea

Usurbil, 64. Zenbakia

*Erlea eta bere lana
ezagutzeko garaia*



Txerrimunik ordainetan



Jose Manuel Alkorta. martxoaren 24an zenbat? Sasoi betean jarrai dezazun muxu haundi bat eta zorionak etxekoan partez.



Urteaskoan **Miren Izeta**, apirilaren 20an 3 urte beteko dituzu eta. Ea ba egun on bat pasatzen duzun! Muxu haundi bat zure anaia Ander eta gurasoen partez.



Zorionak **Eneko!** Egun on bat pasa dezazula zure urtebetetze egunean. Apirilaren 11ean zuk ordaindutako potearen zain egongo gara. Etxekoan partez muxu haundi bat.



Zorionak **Imanol Zinkunegi.** Pasa den apirilaren 6an 6 urte bete zenituen. Ondo pasako zenuelakoan... Familia eta frontoiko lagunak.



Aupa **Javi**, zorionak eta urte askoan! Apirilaren 15ean ospatu behar dugunaz ez gara ahaztu. Beraz, badakizu, zuk ere "kunplitu" beharko duzu eta!



Zorionak **Julen Dorronsoro!** Apirilaren 10ean da zure urtebetetze eguna. Ea ba ondo ondo pasatzen duzun. Zorionak eta muxu haundi bat.



Zorionak **Luis Mari eta Saioa Iburguren.** Apirilaren 8an eta 9an zuen urtebetetze eguna ospatuko duzue, baina ez ahaztu etxekoentzat tarta eta txanpaina gordetzea. Etxekoak.

Hurrengo alea: apirilaren 23an Agurrak ekartzeko epea: apirilaren 16a

Hildakoak

1999-03-25
Fernando Garnateo Galan
86 urte
Olarriondo

Jaiotzak

Maddi Egizabal Rekondo
(1999-03-23)
Kalezar

EUSKO TRENBIDEAKEN NEGUKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	18.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	19.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	20.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	21.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	22.15
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00	06.45	07.05	07.30
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	07.45	08.05	08.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30	08.45	09.05	09.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30	09.45	10.05	10.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00	10.45	11.05	11.30
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30	11.45	12.05	12.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00	12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

* Oriaraino bakarrik

** Aiaraino joaten da

* Oriotik iretzen da

** Aiatik iretzen da

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaldegia 37 20 01

- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarte egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Saioa Erro eta Idoia Torregarai

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloca Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino eta Arantxa Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

Eredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Inaxio Usarralde.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada:

2.600 ale

Lege-Gordailua:

SS-668-96

ISSN:

1136-6818

Inprimategia:

Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarte jendaurreko ordutegia: 16.30-18.30 astegunetan

Azala: Martin Agirresarobe eztingilea erakusketa batean bere erle eta eztiarekin



Nazio bat gara

Aberri egunean herritarrek egin zen aldarrikapena

Gure herriarentzat bidegurutzeko diren une historikoak bizi ditugu. Euskal Herriarentzat benetazko bake eta demokrazia esan nahiko duen eta gure gizartean hainbaterainoko ilusioa pizten duen eskenategira eramango gaituen prozesu politikoa irmotu dadin hiritar guztion indarrak biltzeko uneak dira hauek.

Egoera honetan inoiz baino beharrezkoagoa da euskal herritarrok geure izaeraren oinarrian dau den ezaugarriak berrestea. Horregatik, euskal herritar naizenez, ondoko esaldi hauek aldarrikatzen eta sinatzen ditut aurtengo Aberri Egunean:

1-Euskal Herriak kontzientzi nazionalaren jabe den komunitate historiko, linguistiko eta kulturala osatzen du. Nazio bat da. Eta, hala izaki, nazio bati dagozkion eskubide guztiak ditu. Beren nortasun nazionala behin eta berriro ukatzen saiatzen diren bi estatutan kokatua eta hiru errealitate juridiko-administratibo desberdinetan konfiguraturuta dagoen euskal nazioa osatzen duten lurralde eta biztanleek eskubidea dute beren harremanak artikulatu eta bere etorkizuna libreki eta demokratikoki erabiltzeko.

2- Herritarren borondate librearen gainean bakarrik eraiki daiteke nazio bat. Nazio batek zera esan nahi du: kohesioa, identitatea, balio kategoriak parekatzea, sentipen kolektiboa. Eta, denen gaine-

tik, herri baten desafio nagusiei elkarrekin aurre egitea.

3- Horregatik, Euskal Herriaren nazio eraikuntza indar politiko eta sozial guztiak integrazio ahalegin bat egitea behartzen dituen prozesu dinamiko eta demokratiko bezala ulertu behar da. Euskal herritar guztion, gizon eta emakumeon, parte hartze eta erabaki ekimenean oinarrituriko prozesu gisa.

4- Euskal gizartearen etorkizuna pakean, justizian eta askatasunean eraiki behar dugu. Solidaritzan, eta ez dependentzian; irekitasunean, eta ez isolamenduan. Aurrerakuntzan eta etorkizunaren arian, bere buruaren konfidantzan eraiki nahi duen gizarte bat egituratu behar dugu euskaldun guztion artean.

5- Konpromiso zaharrak berriro eta berriak hartzeko eguna ere bada Aberri Eguna. Konpromiso sozialak, kulturalak edo politikoak; pertsonalak eta kolektiboak. Euskara, solidaritza, desberdintasunaren aurkako borroka, justizia, giza eskubideak, inguru giroa, beste askoren artean, euskaldun guztion esku hartzea exijitzen duen lan eta konpromiso alorrak dira.

6- Beraz, euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa errekonozituz, gaurko honetan hitza ematen dut Euskal Herriaren eraikuntza bultzatuko dudala demokraziaren eta bakearen ildotik.



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Paris etxe atze aldeko untxiei erasoka

Orain dela aste hilabete batzuk, Noaia! aldizkariko alea batean Paris etxe atzean dauden untxiei bruzko artikulotxoak irakurri ahal izan nuen. Beraien kokagunea urbanizatzen zutenean, plaza ingurura bertaratzeko diren umeentzako eta, ez hain ume direnentzat horren gustuko diren untxiekin zer egin behar zen galdetzen zuen artikulua idatzi zuenak.

Behin baino gehiagotan galdetu izan diogu gure buruari, untxi horiek nola ez diren gehiago ugaritzen daukaten leku hori hain haundia izanda. Ba ematen duenez katuak dira horren errudunak, untxikumeei eraso egiten dietela esaten baita askotan.

Hala ere, pasa den asteazkenean, Aste Santu hasiera zela eta, goizeko laurak zire-



nean, bi hankako katuen bisi-ta izan zuten untxi gaixoek. Beste katuek untxikumeei erasotzen dietela, baina oraingo hauek kumeak baina haundi-xeagoak bilatzen zituzten.

Ordu horietan koneju beltzak edo zuriak, ilunak edo argiak, haundiak edo txikiak onak izaten omen dira eta...

Bestela, L.M.B. eta bere


lagunei galdetu behar, zer moduzkoak ziren untxiak?

Xamurrak ote?

Anonimoa

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez **Noaia!** beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak **Noaia!** bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

Txirikitutik




"Kalea hutsik..." zihoen Hertzainaken kanta batek. Argazkiak ere gauza bera esaten digu. Izan ere, Aste Santutan herriko kaleak erdi hutsik egon dira egun hauetan. Urtero bezala usurbildar asko irten dira kanpora eta hemen geratu garenak ez gara asko izan.

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3 Tel. 37 16 85



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIAK

Usurbil

tlf 943 36 14 87

oiartzun

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubiaurua, 10 Tlf. 943 37 18 07
20170 USURBIL-GIPUZKOA



Albaro Ubiñas Iruretagoiena

“Albarito” bezala ezagutzen dugu gehieneok, izan ere nork ez du ezagutzen “Albarito”. 31 urte egingo ditu maiatzean eta Gilisasti baserrian bizi da bere osaba santosekin. San Esteban baino leku politagorik ez omen dago munduan.



Albarito, Albaro, nola deitu behar dizut elkarrizketan?

Berdin dio, jendeak bi izenak erabiltzen baititu. Herrian gehienek Albarito deitzen didate, baina lanean eta Albaro izenez ezagutzen nautenak badira.

San Estebanen bizi zara txikitatik ezta?

Nere ama hemengo zen, eta bertan bizi izan nahiz beti. Oso gustora bizi gara leku honetan, ermita honekin gainera...leku zoragarria da. Eguraldi onarekin gainera jendea animoso animoso etortzen da San Estebanera.

Usurbilen, kaxkoan, biziko zinateke?

Ez dit, enbidiarik ematen. Usurbil herri polita da, baina San Esteban politagoa. Lasai-lasai, kezkarik gabe bizitzeko leku aproposa da hau.

Hala ere, Usurbila joan behar duzunean, ez al da urruti samar gelditzen?

Igual bai, baina bizikletan segituan iristen da. Okerrena gero berriz San Estebana bueltatzeko igo behar den aldapa da. Behetik gora bizikletan ibiltzea kostatu egiten da, izerditan...

Bizikletan ibiltzea, ordea, asko gustatzen zaizu ezta?

Ikaragarri. Kilometroak eta kilometroak egingo nituzke. Zaragoza aldera joango nintzateke gustora. Izan ere bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait. Gaur edo bihar bizikletan ibiltzeari utzi ezkerro, ez nuke etsiko. Nahiago dut bizikletaz ibili oinez joatea baino. Batek esan izan dit: “oinetz proba egin ezazu”. Ni oinez hasi ezkerro hemendik horrera ere ez nintzateke joango. Bizikletaz, berriz, ibilbide guztia egingo nuke.

San Estebango aldapa igotzen ari zarenean ere hori pentsatzen al duzu?

Aldapa igotzea asko kostatzen da, baina poliki-poliki hartzen bada igotzen da. Presaka eta korrika hasten

bazara lehertu egiten zara, baina mantso-mantso ondo joaten da.

Bizikletaz ibiltzeaz gain, bizikletak ondo zaintzea gustatzen zaizu?

Bai, nik ondo zaintzen dut bizikleta, loreez apaintzeko ohitura ere badut. Orain arte bi izan ditut, BH bat eta orain daukadana. Oraingoak irratia eta guzti dauka gainera. Lehen irratitari lotuta belarrian jartzeko aparatua banuen, baina harekin ibiltzea galerazi zidaten. Arrazoi zuten gainera, bizikletan irratia kaskoekin bazoaz ez baita kotxeen bozina entzuten.

Behera askotan jeisten al zara?

Lasarteko lantegi batean, Goienetxan, egiten dut lana eta handik etortzean osabak askotan esaten dit: “Albaro Santuenera jeitsiko al zara fruta erostera?”. Zergatik ez ba? Bizikleta hartu eta adibidez naranja kilo batekin igotzen naiz.

Boda asko ospatzen omen dira San Estebango ermitan?

Bai, egia da. Ni gainera askotan joaten naiz boda horiek ikustera. Bodak oso gustoko ditut, ezkongaien jantziak ikusi, kotxeak non utzi behar dituzten esan...

Eta zuk noiz ezkondu behar duzu?

Ez dakit, baina martxa aldrebesa daramakit. Halako batean ezkondu edo arrimatuko naiz. Hala ere, niretzat hobeto osabarekin baserrian soltero bizitzea, batere kezkarik gabe.

Telebista ikustea gustatzen al zaizu?

Goenkale ikustea asko gustatzen zait, oso polita egiten dute. Hortentsik zer grazia ematen didan... bueno... Bere etorria izugarria da, Leonorregatik hizketan, eraman ezina ikaragarria dauka besteak muxuka ikusten dituenetan eta... bai, bai, asko gustatzen zait Goenkale.

Josu Aranberri

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin



TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Erroizpe elkarteko batzarra

San Jose egunez, Erroizpe elkartean bazkide izandakoen alde meza eman zuten San Esteban ermitan. Meza ondoren elkartera hurbildu ziren guztientzat nahikoa txorizo eta haragi egosia preparatu zuten.

Elkartearen kontuekin jarraituz, martxoaren 28an bazkideak biltzar orokorra izan zuten. Bertan, zuzendaritza batzordeko kideak aktaren irakurketa egin ondoren, ekonomia kontuak zehaztu zituzten (diru kontuak, obren berri, inbentarioak...). Gauzak ondo doaz, horregatik kuota dagoen beza-la mantentzea erabaki zen.

Jabearekin lehengo egoeran segitzen dute, errenta ordaindu lokalagatik eta kitto. Beste akordiorik lortzen ez bada honela segituko da 2005 urte arte. Handik aurrera ikusi egin behar.

Gero, izan diren alta eta baje berri eman zuten eta nahi izan ezker bazkide berriak egiteko aukera zabalik dagoela argi utzi zen.

Azkenik zuzendaritza batzordeko bi kidek, urteen poderioz nekatuta, uzteko asmoa azaldu zuten eta hauek ordezkatzeko auzoko hiru gazte aurkeztu ziren. Orain duela bi urte



batzordean sartu ziren hiru bazkideekin osatuko dute batzorde berria, denak **Juan M^a** Borda lehendakariaren aginpean. Beraz, batzordea gaztetu eta indarberritu egin da Erroizpe elkartean.

KALEBERRI

Hamaika

Eneko Harreguy



Negutik (aspaldiko negurik neguena izan omen da) udaberriko pasabide horren zubi izan dugu Korrikaren hasiera. Badirudi eguraldiak ere bat egin nahi duela Hamaikarekin. Zu eta ni euskaraz...

Beharrean nabil eta zerbaiten beharrak asmakuntzara, zerbait sortzera garamatza. Nik artikulu hau idatzi behar nuenean, maindire bero baino orri zuriago baten aurrean jarri eta sorkuntzara jo nuen, zer bururatuko. Guk ere euskal hizkuntzarekin pareko gauza egin dugu: Euskaraz behar hainbeste jendek hitz egiteko, eta hondoa jo ez dezan, sorkuntzara jo

dugu. Eta horren ondorio dira Korrika, Kilometroak, Bai Euskarari, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz eta beste hamaika antolakuntza erraldoi hauek. Gaztelera edota ingeles bultzatzeko jomuga duen ekitaldi baten berri izan al duzue inoiz? Nekez aurkituko dugu, eta zergatik? Bada, beharrak ez duelako bide horretatik gidatu. Gaztelarak eta ingelesak ez dutelako gure euskaraz bezala bultzatzeko horrenbeste premiarik.

Ekitaldi erraldoi horiek hizkuntzari lagundu beharrez egiten direlako ez ditut gustoko (eta alderantziz pentsatzen dagoe-

nak ez ditu konpromezu hauek festa huts modura baizik hartzen; lastima!). Honekin ez dut esan nahi bultzatu behar ez direnik, baska, alderantziz hain zuzen. Baina zu eta bion hizkuntzak antzeko ekitaldi eta zereemoniarik ezagutuko ez balu... zerbaiten adierazgarri polita litzateke. Okerrena da hamaika daudela. Kasik hileko bat!

Hizkuntza batek jardunetik, jariatik bizi behar du. Jarioaren poderioz, ttanttaka-ttanttaka-korrika eta presaka joan gabelehen dabizi putzu, erreka geroxeago eta azkenik itsaso bihurtuz.

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Helbidearekin gora eta behera

Gure auzoak mota guztietako izenak jaso izan ditu, batez ere banku, aseguru etxe, errezibo eta antzekoak bidaltzen dizkiguten eskutitzetan. Gutxitan ikusi dut nire helbidea eskutitz batean zuzen idatzita.

Hiztegi zabal bat egin genezake jasotako adibideekin; Atxesalde, Atxe-galde, Hachegalde, Atxega-galde... Nik beti idatzi izan dut modu honetara "Atxega- alde" eta benetan harritu nintzen *Noaua!*n lehendabizikoz "Atxegalde" bezala ikusi nuenean. Jesus! Nola demontre idatzi behar dugu gure helbidea?

*Noaua!*k erabaki zuen auzo guztien izenak bateratuak idatziko zituela: Atxegalde, Santuenea, Kalezar... Honela, ba, eta idatziaren idatziaz "Atxegalde" erabiltzera ohitu nintzen.

Kontua argi nuela zirudien... ez zituzten ba kaleen izenak aldatu! Bat batean Atxegalde 19an bizitzetik Erdiko kalean 4an bizitzera pasa nintzen, eta etxetik mugitu gabe, halakorik!

Berriz ere helbide berrira ohituta nahiko lasai nenbilen aurreko astearte. Pasaporte behar nuela eta

gobernu zibilera joan nintzen. Bertan orri bat eman zidaten betetzeko, betiko gauzak, izena, jaioteguna, helbidea... helbidea? Batere dudarik gabe jarri nuen, seguru; Erdiko kalea 4.

Lau egunetako bizarra eta haserre aurpegia zeukan gizon hark, bere "euskara berri" hartan esan zidan:

- "Sure" NAN dokumentuan "jartxen" du helbidea Atxega-alde 19 dela. Eta NAN dokumentuan "jartxen" duena jarri behar "dusu".

Eta nola esplikatu erretxindutako gizon hari ezetz, Erdiko kalean bizi nintzela?

KALEZAR

Urko Manterola



Zaharrak berri beharrea, berriak egiten

Auzotar baten kexa ezin utziko dut ba aipatu gabe: Bizkartzoko zubian dauden baranden burdin puskak falta direla eta daudenak ere ez daudela oso ondo.


Udalak beharbada ez du berritzeko asmorik izango, berria egiten ari baitira lehen Eguzkitza baserria zen lekutik Illarramendira arte (honen ondoan etxebizitza batzuk ere egin behar dituzte).

Beste alde batetik, lehengo alean irakurri nuen akatsa zuzendu nahiko nuke. San Juan jaiak antolatzen dituen taldeak lokal berria zuela eta, orain, festetako materiala non gor

dea izango zela jartzen zuen, baita Ezkerraneko garajearen egoten zirela ere.

Azken hau, ordea, ez da honela. Materiala urte guztian Harane futbol zelaiko lokalean egoten zen, nahiz eta festetan

Ezkerraeneako garajea erabili festetako lokal bezala. Orain, dakizuen bezala, lehen Udarregi ikastola izan zenean gordetzen dugu material hau guztia.



Beraz, San Juanak hurbiltzen ari dira eta festak antolatzen laguntzeko prest zaudetenok badakizue non gauden, denon artean hobeto egingo ditugu gauzak

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Oinezkoentzako pasabideak garrantzitsuak dira

Duela bizpahiru ale niri egokitu zitzaidan gure auzoari eskeintzen zaion tartetxo hau idaztea. Ale hartan, orri txuri hau zuen ekarpenez ere bete daitekeela gogorarazi nizuen, guztion artean kronika aberatsago bat egiteko intentzioz. Istorio zaharrak, kexuak, kezakak, etab. jasoko dituen lekutxoak sortzeko hain zuzen ere.

Batek baino gehiagok aintzat hartu du bidalitako mezua.

Lehengo astean etxera noala auzoko bat gerturatu zitzaidan eta hauxe esan zidan: "Agurtzane aurrekoan idatzi zenuen kronika hartan,

auzokoen iritziak, kexak, ...gustora entzungo zenituela aipatu zenuen. Niri ere azken egun hauetan hain urduri naukan hau jartzea gustatuko litzaidake; Santueneko sarreran



oinetzkoentzako pasabide bat markatu behar da, Maria Luisaren dendaren parean hain zuzen ere. Kotxeak leku honetan abiada haundiz igarotzen dira, batez ere semaforoari gorria jartzeko denbora gutxi falta zaionean."

Arrazoi osoa du auzoko honek. Oso leku arriskutsua da hori. Izan ere, haurrak ikastolara joateko hor hartzen baitute autobusa eta, askotan, kotxe-rik badatorren edo ez ikusi gabe zeharkatzen dute bidea. Oinezkoentzako pasabidea seinaleztatuta egongo balitz, agian kotxeak mantoago pasako liriateke.

URDAIAGA

Joseba Zubeldia



Udaberria iritsi dela eta...

Igarotako negu gogorraren ondoren iritsi da bai udaberria. Auzo honentzat urtarorik garrantzitsuena izan ohi da udaberria. Zuhaitzak beren hostoen berdetasuna berreskuratzen dute udazkenean jasadako hosto erorketaren ondoren, fruitu landareak loretan jartzen dira uztailea aldera fruitua emateko eta belardiak udaberriko loreen edertasunaz jutzen dira.

Leizekaldea parkea jende askoren atsedenerako eta egun pasarako toki bihurtzen da asteburu eta jaiegunetan, bertan dauden mahai eta sutokiak erabiliaz. Beraz, saiatu beharko genuke horrelako leku

eder bat ahalik eta txukunen zaintzen, mahaiak eta inguruak joaterakoan garbituta utziaz.

Beste aldetik, hainbat ezkontza ere ospatu ohi dira garai honetatik aurrera. Askotan ospakizunaren unean andre-gaiaren kotxea apaintzen saiatzen dira, broma gisa globoekin etab. betez. Baina behin ezkonberriak elizatik atera eta kotxera

joaten direnean bertako globo eta bestelako hainbat zakar bertan zuten dituzte. Beraz eskatuko genieke zakar horiek jaso eta inguruak lehen zeuden bezala uztea.



AGINAGA

Korrika eta Aste Santua

Iratxe Begiristain



Aurtengoan ere, aginagarrok izan dugu aukera euskararenganako gure jarrera aldarrikatzeko KORRIKA 11ren bitartez. Ordubetez han izan ginen zain (batzuk parrandaren balantzea eginez, besteak

noraino iristeko planak kontatzen, beroketak egiten...)

Gure mugara iritsi zenean berriz, denak jertsea gerrian lotu, eta aide! oso giro polita sumatzen zen... Hau izango zen batzuk Donostiaraino iristeko



arrazoia, besteak beste bidean Martxelok jasotzen gintuen bitartean. Beno, hurrengorako ea lehenxeago entrenatzen hasten garen eta...

Aste Santua, berriz, kanpora ateratzeko sasoa bihurtu zaigu, baita Bazkoa

astea ere. Horrela ba, aurtengoan ere ez dute etxean gertzeko asmorik izan aginagar helduek.

Iaz bezala, Benidorn aldera joango dira eguzkia hartzeko asmotan. Ea ba aste hau lasai egon eta leku ezberdinak eza-gutzeko aprobetxatzen duten!

Baina hau ez da egiteko duten ekintza bakarra, Iratxe monastegira ere joatekoak baitira hila bukatu aurretik. Bien bitartean, belarren erabilpenari buruzko ikastaroa izango da lokaletan. Guzti hau apirilean izango da, beraz, erne ibili zaitzte ekintza hauetan parte hartu nahi duzuen guztiok.

ZUBIETA

Odonen eskutitza

Xabier Arregi



Donostiako Alkate jaunak eskutitz pertsonala bidali digu zubietarroi. Alkate pres-tuak bere lumatik adierazi nahi izan digu Txakurtxulotik beherako saneamenduari ekitera doazela eta obrek bi hilabete joko dutela. Donostiako alkateak jakinean jarri gaitu, badaezpada ere: "Zubieta donostiar auzoko saneamendu sistema egoera txarrean dago". Haren esanean lasai eta pozik egon gaitezke, laster konponduko dizkigute eta saneamendu arazoak.

Odonek ez daki. Baleki, Zubietari ez lioke auzo deituko, gurea herria baita, betidanik administrazio sistema berezia eta autonomia izan duen herria.

Odonek errespetu gutxi erakutsi du. Errespetuaren arrastorik balu, ez luke Zubietako Herri Batzarra aintzat hartu gabe eskutitzik bidaliko. Ez ditu kontuan hartu Herri Batzarraren ardurak eta betekizunak, ez eta saneamenduaren arazoari konponbidea emateko egindako lanak ere.

Eta, hara gauzak nola diren: Zubietako herri-asanbladetan herritarrek egindako eskariak betez, Herri Batzarrak Arartekoarengana jo zuen duela urtebete. Handixetik etorritako erantzunak ekarri du, gerora, oraingo saneamendu-proiektu nagusia. Proiektu horrek ez du, horratik, Zubieta oso-osorik hartzen, beraz, ez da nahikoa.


Odoni ahaztu egin zaio, gainera, hastekotan edo martxan dauden beste lan eta proiektu batzuk aipatzea. Bidenabar, erneago ibilita, zergatik ez jarri eskutitz berean bide nagusia hobetu eta errebueltak zabalduko direla (Artzabaleta, Etxetxo, Lizarraga) edo hipodromoko zabalunea galipotatzeko asmoa dagoela. Akaso horiek aipatu izan balitu eta gure herriaren izaera errespetatu izan balu emankorragoa gertatuko zitzaiokeen saiakera hau.

Baina ez, egia esan, Odonek ez du modurik onena aukeratu zubietarren botoak eskuratzeneko.

Eroskirekin hitzarmen berria egin du udalak

Asteasuain aldean kamioien sartu-irtena etengabea da azken asteetan. Pixkanaka-pixkanaka Eroskiko hipermerkatua eraikitzen ari dira. Bien bitartean bulegoetako lanean ere ez dago etenik. Pasa den martxoaren 23an egin zen plenoan zenbait lizentzia eman zizkion udalak, eta bide batez, Eroskik proposatutako aldaketak ere onartu zituzten.

Udalak Eroskirekin hitzarmen bat sinatu zuen 1996ko urriaren 30ean. Asteasuaingo lurretan merkataria jarduera gartzeko, hipermerkatua (azalera txiki eta ertainekoak) eta gasolindegia zerbitzu geltoki bat martxan jartzeko baimena eman zitzaion. Ordu ezkeroztik ordea, aldaketa batzuk proposatu dira Eroskiren aldetik, eta horiek kontuan hartuta hitzarmen urbanistikoa osagarri bat onartzea erabaki berri du udalak.



Eraikuntza eremua 30.000 m²tik 37.500 izatera pasakoda, 750 m² gehiago. Honen truke, 11.750.250 pezeta gehiago ordaindu beharko dizkio Eroskik udalari, m²ko 15.667 pezetako prezioa jarri baitzuten hasierako hitzarmen hartan. Honekin batera, erabilerara publikoa izango duten bideen, espaloien, argiteriaren eta eremu berdeen manteni

mendua Eroskiren esku egongo da, nahiz eta hauen jabetza udalarena izan. Azkenik, Eroskik 36.249.750 pezeta emango dizkio udalari ur hornidura orokorretik ura ekartzeko behar diren hodiak konpontzeko eta Asteasuain inguruko ur hornidura egiteko.

Honekin lotuta, merkatal zentro gunerako urbanizazio proiektua ere onartu zen.

Artzabal inguruan ere etxebizitzak egingo dituzte

Txaramunto, Galtzaragaina aurreko eta Aginagako babes ofizialeko etxebizitzak eskatzeko epea amaitu ondoren, babes ofizialeko etxebizitza gehiagoren berri izan dugu. Oraindik gauza segurua ez bada ere, Artzabal baserria eta Eguzkitzaldea arteko lurretan egingo dituzten etxeetako zenbait etxebizitza babes ofizialekoak izan daitezke.

Kontratista batek hartu du hor etxeak eraikitzeke konpromezua eta udalari zenbait gauza aldatu nahi dituztela jakinarazi zion etxebizitzak aurrera ateratzeko proposamenarekin etorri zirenean. Lehengo hartu-emanak izan dituzte bi aldeek, baina oraindik ez dira ezertan gelditu. Hala ere, badirudi etxe horietan babes ofizialeko etxeak egin daitezkeela.

Aurren planoak aurkeztu dituztenean aldaketa batzuk egitea proposatu dute, eta horien truke udalak babes ofizialeko etxeak eskatu dizkie. Izan ere, proposatzen dituzten aldaketa horiekin etxebizitza gehiago egiteko asmoa dute Artzabal inguruko lurretan. Babes ofizialeko etxebizitza hauek aurrera ateratzekotan datorren urterako izango lirarteke.

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

ESTETIKA ZENTROA

Elexpe
i l e a p a i n d e g i a

*Tatuaiak
Betileen tintaketa
eta permanentea*

Munolurra 2

Telf.: 943 37 04 62

I P O T X
☕

EDARITEGIA

Galtzaragaina 6 ☎ 943 36 07 36

Etxealdiako lanak

Etxealdiara joateko bide berria erabili ahal izango da laister. Orain arte San Esteban kaleko bide estuan "ezin kabituan" ibili ondoren, alde ederra somatuko du hor gora eta behera ibiltzen den jendeak. Bide berriaz gain, aparkaleku berri bat egitea ere erabaki du udalak.


Etxealdiako sarrera berriaren bigarren fasea amaitzen ari dira ja. Lehen fasean betelana egin ondoren, sarrerari itxura berria emateko lana zuten bigarrenek.

Pixkanaka-pixkanaka ari dira horretan ere. Espaloi berriak jartzeaz gain farolak ere jarri dituzte ja. Orain bidea asfaltatzea eta dena txukun-txukun uztea besterik ez da falta.

Sarrera hau amaitzeko denbora gehiago beharko dute. Izan ere, pasa den martxoaren 23an egin zen plenoan, bide berriaren aldamenean



aparkalekua egitea erabaki zuen udalak. Goitik behera joanda, bihurtune haundia- ren ondoren eskubitara lur zati bat gelditzen denez, leku hori aparkalekua jartzeko erabiliko dute. Guztira 35 ibilgailu inguru utzi daitezkeen aparkalekua izango da.



LABURRAK

Udalak Ugarte industrialdean erosi zuen lokalaren bigarren pisua herriarentzat interesgarria izango den jarduera jartzeko lehiaketa antolatu zen duela hilabete inguru. Gorostitxo Eztiola Elkarteak izan da proposamena aurkeztu duen bakarra. Honenbestez elkarte honek bost urterako errentan hartuko du lokal hau. Orain, Gorostitxo Eztiola Elkarteak ezta atera eta ontziratzeke leku berria izango du lokal hau horretarako prest jarri bezain laister.

Zenbait langile hartzeko lehiaketak ireki ditu udalak. Azken plenoan onartu zituzten oinarriak eta apirilean zehar lanpostu hauetara aurkezteko aukera izango dute hala nahi duten guztiek. Administrari laguntzaile bat eta kale garbitzaile-makinista bat aukeratuko dira lehiaketa bidez. Bestalde, udaltzain zerbitzuan airtzeko lan poltsa berri bat osatzeko oinarriak ere onartu dira eta apirilaren 16a izango da eskaerak aurkezteko epea.

Udalarenak diren eraikuntza publikoen garbitasunezko azterketa egitea onartu zuen udalak urtarilaren 12an. HUMA eta OTEIC enpresak azterketa hori burutzeko prest agertu ondoren, 650.000 pezetako aurrekontua aurkeztu ondoren azken enpresak egingo du lan hau. Agerialde, Udarregi ikastola, Santueneko eskola, Aginagako eskola, Udarregi zaharra eta udaletxeko garbitasun zerbitzua zer nolakoa den aztertuko du OTEIC enpresak

TXIMINIA ALTZARIAK

Osinalde industrialdea
(Aizpurua autobusen aldamenean)

Tel.: 943 37 09 66

**BISITA EZAZU
ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT
USURBILEN BERTAN.
PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.
ESKAINNTZA BEREZIAK BETI!!**

“Felix Aizpurua” literatur lehiaketa

Azken urteetan literatur lehiaketaren kontua ahaztuta geneukan herrian. Lehen bai, Udarregi ikastolak antolatzen zituen olerki, ipuin eta bertso lehiaketak, baina badira zenbait urte horrelakoak egiteari utzi zitzaiola. Aurtun, ordea, ez da hori gertatu. Udalak, Udarregi ikastola, *Noaua! Kultur Elkartea* eta Euskararen aholku batzordea osatzen duten guztiekin batera, haur eta gazteentzat “Felix Aizpurua” I. Literatur Lehiaketa martxan jarri du.

Azkenean “Felix Aizpurua” izena jarri zaio udalak antolatutako duen I. lehiaketa honi. Izan ere, antolatzaileek zenbait izen eduki dituzte eskuartean. Hala ere, izenak izen, martxan da usurbildar haur eta gazteentzat antolatutako duen literatur lehiaketa. Euskaraz prosa eta olerkia lantzeko aukera izango du parte hartu nahi duen 8 urtetik 16 urte bitarteko edonork.

Usurbildar haur eta gazteentzat

Hiru adin taldetan banatuko da usurbildarrek bakarrik parte hartu dezaketen lehiaketa. 8 urtetik 10era bitartekoek osatuko dute A taldea, 11tik 13ra bitartekoek B taldea eta 14tik 16ra bitartekoek C taldea.

Olerkiari dagokionez, talde bakoitzarentzat bertso kopuru eta neurri desberdinak eskatzen dituzte antolatzaileek. A



“Felix Aizpurua”ren

I. Literatura Lehiaketa

PROSA ETA OLERKIAN

Haur eta Gazteentzat

Lehiaketa

1999

“Felix Aizpurua”ren

Tronak dobilitza hegan,

askatasunean hegan,

Loturak gabe hegan,

ohial urdinaren gainean...

(Aritzia Anasua)

taldekoek bertso edo poesia bakarria egin beharko dute neurri librean. B taldekoek, berriz, olerki bat edo gehiagoz osatuta egon daitezkeen 2 edo 3 bertso edo gehienez 25 lerroko poesia. Eta C taldekoek olerki bat baino gehiagoz osa daitezkeen 6 bertso edo gehienez 50 lerro dituen poesia.

Hitz lauan parte hartu nahi duenak, beste neurri batzuk bete beharko ditu. Gehienez 2 orrialdeko lana egin dezakete A taldekoek, gehienez 4 orrialdekoa B taldekoek, eta 6 orrialde izango da C taldekoentzat ezarri den muga.

Hiru sari hitz lauan eta olerkian talde bakoitzeko

Sariak ere ez dira nolana hikoak izango. Bai prosan eta bai olerkietan hiru sari banatuko dira adin talde bakoitzeko:

A taldea (L.H. 3. eta 4. maila)

1. saria ... 7.000 pzt. materialetan
2. saria ... 5.000 pzt. materialetan
3. saria ... 3.500 pzt. materialetan

B taldea (D.B.H.1. eta 2. maila)

1. saria ... 10.000 pzt. materialetan
2. saria ... 7.500 pzt. materialetan
3. saria ... 5.000 pzt. materialetan

C taldea (D.B.H.3. eta 4. maila)

1. saria ... 25.000 pzt. dirutan
2. saria ... 13.000 pzt. dirutan
3. saria ... 8.000 pzt. dirutan

“Felix Aizpurua” lehiaketa honetara aurkeztu nahi diren olerki eta prosa lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanak, “Felix Aizpurua I. Literatur Lehiaketa” izenburuz Udarregi ikastolara bidali beharko dira maiatzaren 7a baino lehen. Sariak, berriz, ekainaren 13an banatuko dira.

Josu Aranberri

**OSTAPE
ARANGUREN**

**GASA
eta
BEROKUNTZA**

☎ 943 36 43 64- 943 36 16 95



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55

PORTULARRUME



**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**



Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99



**LIZARRA
GARAZI**
a k o r d i o a

Usurbilen aurkezpena

- HB Joseba Permach
- EA Jagoba Larburu
- IU Rikardo Ortega

- LAB Rafa Diez
- ELA
- EAJ

**Apirilaren 14an
Udarregi ikastolako erdiko aretoan
iluntzeko 7.30etan**

Koldo Urrutia: "Erlea bera espezie gisa bizirik mantentzea arazo bat da"

Apirilaren 24an, Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak antolatuta "Erle Eguna" izango da Usurbilen. Guk elkarteko lehendakaria den Koldo Urrutiarengana jo dugu erle egun honen eta erlea beraren egoeraren berri jakin nahian. Izan ere, erlezainak beti izan dira Usurbilen. Bertan kokatuta dago Gorostitxo Eztiola Elkarte eta erlauntzak baserri askotan ez badaude ere, erlazain txikiak gero eta gehiago dira.

Zein da Gipuzkoan eta Euskal Herrian lehen aldiz "erle eguna" egitearen arrazoiak?


Gipuzkoako Erlazainen elkartean 500 bazkide inguru gaude eta gehienak "erlazain hobys-tak" gara, erleak maite ditugu. Orain arte barruko lanetan jardun dugu, bazkideei zerbitzu batzuk eskainiz etab. Azkenaldi honetan, ordea, hori nahikoa ez dela konturatu eta erlazaintza nolabait ezagutarazteko nahiz erlea gizarteratze prozesu batean sartzeko ekintzaren bat egin behar genuela bururatu zitzaizgun. Hortik dator apirilaren 24an Usurbilen "erle eguna" egitearen kontua.

Erlezaintza, erlearen mundua ezagutarazteko beharra al dago?

Jendeak erlearen bi irudi ditu gehienetan: erlea eztiarekin lotzen du eta erleak heldu, ziztatu egiten duela esaten du, nahiz eta gehienetan listorra izaten den. Erlearen inguruko ezezagutza handia da eta horren ondorioz erlezainak erlea kokatzeko eta zaintzeko garaian zailtasun handiak izaten ditu.

Eztia erleek sortzen dutela badaki jendeak?

Bai, baina erlearen berezko produktua ordea, loreen ernalketa da: polenizazioa. Erlea



polenizazioaren eragile nagusia da eta horrez gain ezti, propoleoa, argizaria etab. egiten ditu. Polenizazio oso garrantzitsua da, eta are gehiago biodibertsitatearen mantentzeari, parke naturalak martxan jartzeari ematen dioten garrantzia kontuan hartzen badugu. Baina, erlerik gabe jai dago, hauek egiten baitute polenizazioa. Zenbat eta polenizazio estaldura hobea izan, landareen ernalketa hobeto ematen da, eta fruitua emateko polenizazioa beharrezkoa dute landareek. Erlerik gabe ez dago polenizazio askorik.

Baina erleak badaude ezta?

Duela hamar urte Asiatik etorritako "barroa" izeneko "accaro" batengatik (erleen barruan hazten den zomorroa) egoera guztiz aldatu da. Hemengo erleak ez dauka "accaro" honen aurkako defentsarik eta erle asko hil dira. Lehen zeuden basa erle guztiak desagertu egin dira, eta erlazainen kontrolpean daudenak bakarrik irauten dute bizirik. Izan ere, erlezainek urtean bi aldiz, "accaro" horren aurkako tratamendu berezia aurrera eramaten dute erleekin. Hori bai, erlazainen eskuetatik kanpo zeuden eta dauden

erleak hil egiten dira. Orain gutxi arte Gipuzkoan ez zegoen horrelako arazorik.

Hain handia izan da "Accaro" honen eragina?

Honek erlazaintzaren aldaketa izugarria ekarri du. "Barroa" etorri aurretik, baserrietan bi edo hiru erle erregin izaten ziren. Baserri, inguruetan, teilatuetan, eliz dorreetan etab. zeuden erleek polenizazio aldeetik beren lana egiten zuten. Nolabait esateko polenizazio estaldura ona zegoen, beharrak eskatzen zuen adinakoa. "Barroaren" etorrerarekin erlazaintza tradizionala desagertu egin da. Betidanik erleak izan dituzten baserrietan halako batean erleak galdu zituzten eta hurrengo urteetan erleak beren erlauntzetara ez zirela sartzeko ikusi ahal izan dute.

Erleak bizirik irauteko ere arazoak al ditu?

Lehen erleek beren lana betetzen zuten eta inor ez zen horretaz konturatu. Hor zeuden eta langile merkeak ziren. Gaur egun, ordea, hau arazo bat bihurtu da. Erlea bera espezie bezala bizirik mantentzea arazo bat da. Izan ere, "accaro" horren aurka darabilgun tra-

tamendua produktu kimiko baten bidez erlea tratatzea da. Tratamendu honen eragina positiboa zen hasiera batean, baina "accaroa" bera produktu honen aurkako erresistentzia sortzen ari da. Horregatik, momentu honetan honekin arazoak ditugu. Orain arte erabilitakoa alde batera utzita zer produktu erabili behar dugun aztertzen ari gara, baina arazo handiak ditugu, dirua eta lana oso etekin murrizta ateratzeko. Lehen arazoa ez zena momentu honetan arazo bihurtu da. Erlea bera arazo bat da, bizirik mantendu behar den espezie bat baita. Erleak betetzen zuen edo duen lana bera ere arazoa da, zenbat eta erle gutxiago polenizazio sare txikiagoa baita.

Hain handia da erleak polemizazioan duen eragina?

Erleak ez dauden lekuetan polenizazioa ez da behar bezala bideratzen eta polenizazio gabeko eremuak badaude ja Gipuzkoan. Zelatunen, esate baterako, garai batean berezko erleak izango ziren, baina gaur egun ez dago. Erleak dirua eskatzen du. Zelatunen erleak jartzeko erle mordo bat jarri behar da, erle erregin batengatik ez zara joango, gasolina, denbora... etekin gabeko erleak izateko. Horrez gain, erleak toki batzuetan kokatzeko garaian zailtasunak ere badaude.

Toki batzuetan erleak egiten duen lanaz konturatu dira.

Adibide bezala, Asturiasen, hartzak babesteko plangintzan erleak kokatu dituzte hartzaren lurraldean, eta horren zaintza erlezain batzuen esku utzi dute. Erle hauek polenizazioa egiteko jarri dituzte, gero hortik sortuko baitira hartzak, eta gainontzeko fauna ere bai noski, iraunbizitzeko beharrezkoak dituzten fruituak. Kate luze bat da guztia, eta kate horretan erlearen lana oso garrantzitsua da. Parke naturalak egitea modan dago, baina parkeetan erleak behar direla ez dira jabetzen. Ura

Erle eguna apirilaren 24an

Erlearen inguruan mugitzen den guzti hau ezagutzera emateko "erle eguna" antolatzea erabaki zuten. Honelako egun bat egingo den lehen aldia izango da, Euskal Herri mailan inoiz ez baita horrelakorik antolatu. Zer-gatik izango da Usurbilen? **Koldo Urrutiaren** esanetan Usurbilen baldintza berezi batzuk ematen dira. *"Usurbilen erlezainen antolaketa bat badago. Gorostitxo elkartearen funtzionamendua ona da eta udal aurreratu batekin topo egin dugu. Horregatik bertan egitea erabaki genuen"*.

Apirilaren 24an egingo den "Ezti egunean" aukera zabala egongo da. Eztia, argizaria, pro-polioa, produktu ekologikoa... salgai jartzeaz gain erlazantzari buruzko erakusketa eta ezta aterratze erakustaldia ere izango dira herriko frontoian.

Gipuzkoako ezti sariketa nagusia ere izango da egun horretan. Jendeak Gipuzkoan ezta egiten dela jakin dezan iaz ezti lehiaketak egiten hasi ziren. Gipuzkoako erlezain elkarte sei eskualdetan banatuta dagoenez, bakoitzean, eskualde horretako eztekin lehiaketa egin zen. Egun honetan eskualde bakoitzean saritutako hiru eztiarekin ezti sariketa nagusia egingo da. Tartean izango da **Joxe Mari Alduntzin eta Julian Bengoetxearen ezta**, Lasarten egin zen lehiaketan lehen postua eskuratu baitzuten.

Bukatzeke erlearen inguruko bertso bazkaria egingo da Saizar sagardotegian. Bertan izango dira, erlezainak diren **Jon Sarasua** eta **Joxe Mari Irazu** bertsolariak eta erle laguntzat dituzten **Bernardo Atxaga**, **Mikel Laboa** eta **Joxe Luis Zumeta** besteak beste.



behar den bezala polenizazio sare bat ere beharrezkoa da.

Erlezainaren lana ere garrantzitsua al da?

Orain arte ezkutuan ibili gara, baina oso lan garrantzizkoa betetzen du erlezainak eta zer esanik ez erleak. Gure erlauntzetatik erlekume bat atera eta erlezainen kontrolpetik kanpo gelditzen bada, badakigu urte berean hori hilda dagoela.

Eztigintzan sartuta, ze nolako ezta egiten da Gipuzkoan?

Gipuzkoako ezta oso ona da. Kanpora joan eta "ezti mono-

floral" erosteko ohitura dago, merkea delako noski, baina niretzat dagoen eztekin onena milalorea da, hauetatik bildutako netarrarekin egindako ezta delako. Gipuzkoan adibidez, 80 ezti desberdin probatzeko aukera izan da lehiaketetan. Gipuzkoakoa benetazko "mila lorea" da, ez baita Espainiakoa bezalakoa. Han hiru edo lau loreetatik bildutako ezta izaten da. Gipuzkoan ezta egiteko beharrezkoa den netarra ematen duten 600 landare desberdin inguru daude. Oso aberatsa da Gipuzkoako ezta

Josu Aranberri

UEMA eta Euskadiko Kutxaren arteko hitzarmena

Euskadiko kutxaren eta Usurbilen arteko harreman guztiak, ahoz nahiz idatziz euskaraz izango dira hemendik aurrera. Izan ere, Euskadiko Kutxarekin harremanak dituzten UEMAko 16 udalerrietako alkateek eta Euskadiko Kutxako zuzendari nagusi den Juan Joxe Arrietak martxoaren 25ean izenpetu zuten euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena. Euskaldunek erdal-dunekiko parekotasuna lortu nahi nahi da, eta lehen Gipuzkoako Kutxak egin zuen bezala, Euskadiko Kutxa beharrezkoak diren baliabideak jartzeko prest agertu da. Entitate honen diru emaile automatikoetako agurra, adibidez, euskaraz bakarrik izango da hemendik aurrera




Oraingoz hitzarmenik ez EAJ eta EAren artean



Usurbilgo Eusko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna momentuz behintzat ez dira batera aurkeztuko datozen udal hauteskundeetan. EAJko zinegotzia den **Lurdes Jauregiberrik** martxoaren 24an Diario Vascoz emandako informazioa ez dela egia adierazi digu. EAJ eta EA udal hauteskundeetan batera aurkezteko hitzarmenera iritsi direla eta hautagaia nor izango den negoziatzea besterik ez dela gelditzen zioen berri horrek. Horrez gain, hautagaia izateko aukera gehien dituen **Lurdes Jauregiberri** dela esaten zen. Honek ordea, gezurtatu egin du Diario Vascon azaltzen zen berria.

Aberri Egun bateratua Usurbilen

Pasa den apirilaren 4an Aberri Eguna ospatu zen Euskal Herri osoan. Usurbilen ere, Euskal Herriko Udal Ordezkarien biltzarrak egindako gobicapenari jarraituz eta "Jalgi zaitez plazara. Zatoz gurekin Euskal Herria eraikitzen" leloarekin bat eginez, udaletxe aurrean ekitaldi bat burutu zen goizeko 11.30ak aldera. EAJ, EA, HBko zinegotziak eta Izaskun Maiz indendentia bildu ziren udaletxe aurrean eta hiru dantzarik aureskua dantzatu ondoren "Nazio bat gara" aldarrikapena irakurri zuen alkateak. Ondoren, idatzi honekin bat egiteko aukera eman zuten.



JUANTXO
Burdindegia



Kale nagusia, 10
Usurbil

☎
37 00 08

gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia


San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL


ARRAINDEGIA
PELLO
 Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL 

Euskaraz trebatzeko ikastaroa

Euskaraz trebatu nahi baduzu, orain duzu aukera. EKB, AEK eta Euskaldunon Egunkariak bultzatutako kanpainaren berri jakingo duzu, baina bertan izena emateko epea laister irekiko dela gogoratu nahi dizugu. Apirilaren 12tik 24a bitartean matrikulatu ahal izango da Etumeta Euskaltegian, beti ere bulego orduetan. 27.000 pezetaren truke 50 orduko ikastaro honetan parte hartzeaz gain Euskaldunon Egunkariaren urte osoko harpidetza jasoko du.




Marrazki-ipuina emanaldia duzue argazkian ikusi dezakezuenena. Ez da askotan entzuten den zerbait, baina **Ixabel Agirresarobe** usurbildarrak eta Euskaldunon Egunkariako **Mattin** marrazkilariak ikuskizun polita eskaini zuten pasa den martxoaren 25ean Txiriboga tabernan egin zen ekitaldian. Ixabelek ipuinak kontatzen zituen bitartean Mattinek ipuinarekin zerikusia zuen zerbait marrazten zuen. Oilarrak, igitaia, hegazkina, Pinochet... denetik marraztu zuen Mattinek.

Euskal Herriko txirindularitza itzulia


Apirilaren 5etik martxan den txirindularitza itzulia Usurbildik pasako da datorren apirilaren 9an. Aurretik, Andatzatik barrena joanda, Andazarraten munduko txirindulari onenak ikusteko aukerarik ez duenak, Usurbilen ikusi ahal izango ditu, eguerdiko 12.30- 13.00ak aldera pasako baita herritik Oriora bidean. **Haimar Zubeldia** usurbildarra animatzeko aukera paregabea izango duzue, tartean pasako baita herriko txirindulari profesional bakarra.



Korrika 11 etorri aurretik prestatutako egitarauaren barruan, Ereintza dantza taldearen "Euskal Herriko sei herrialdeetako dantzak" ikuskizuna ikusteko aukera izan zen pasa den martxoaren 26an herriko frontoian. Lapurdin, Zuberoan, Nafarroan, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan egiten diren sei dantza taularatu zituzten gero historia aurreko jantziekin egin zuten dantzarekin amaitzeko. Donostiako dantzariak eskaini zuten dantzaldia ikustera ez zen jende asko gerturatu.



Itxura guztien arabera datorren alea egiteko egoitza berria izango du **Noaua! aldizkariak**. Eguzkitzaldeko Borda berri kale inguruan egongo gara apirilaren 12tik aurrera. Zaharren egoitza izan zena eraberritu ondoren, **Noaua!** Kultur Elkarteak, Sagardo Egunaren Lagunak, Hitza Jasoz eta El-karriren egoitza izango da hemendik aurrera. Beraz, badakizue, hemendik aurrera egoitza berrian aurkituko gaituzue, nahiz eta telefono zenbakia eta helbide elektronikoa oraingo bera izango den.



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

3.675 pta. (pertsonako)

David Asensio 18 urtez azpiko selekzioarekin

Arratsaldeko seiak inguru ziren, asteazkena edo osteguna...ez nago seguru. Sukaldera bidean (beti bezala txokolate bila edo) aita futbol partidu bat ikusten ari zela "entzun" nuen, telebistara gerturatu ere ez bainitzen egin. Bat-batean abizen ezagun bat hizlariaren ahotan: Asensio. Gerturatu eta hara non ikusten dudan David espainiar selekzioarekin! Non geratu ote dira Udarregiko plazako partidu haiek!

Lehen ere atal honetan azaldu izan den arren, berriz eskeini behar diogu txoko hau **David Asensiori**, merezi du eta. Usurbildar hau hor dabil Bilbo aldean, ixil antzean edo, gora eta gora.

Duela hilabete inguru, hiru egun pasa zituen Madrilen 20 urtez azpiko espainiar selekzioarekin. Ondoren, Cadizen izan zen 18 urtez azpiko selekzioarekin. Cadizen, Rotan, hain zuzen ere, 9 egun pasa zituen eta partidu osoa jokatu ez bazuen ere, hiru partidutatik bitan aritu zen.

Davidek kontatu digunez, egun atseginak pasa zituen Cadizen. Giroa ona zen eta ez zuen arazorik izan taldean



egoki sartzeko.

Diziplinari dagokionez, lasaia-ego egon omen zen Cadizen: entrenamenduak ez ziren Bilbon bezain gogorak eta elikagai kontuetan ez zeuden hain kontrolatuta.

Baina zer nolako aukeraketa egiten du selekzioak? Benetan "onenak" direnak aukeratzen al dira? Davidek ezetz uste du. Aukeraketa oso subjektiboa dela eta, bere ustez, jokalaria oso onak gelditzen dira selekzioaren aukeraketatik kanpo. "Zorte kontua da" dio usurbildarrak.

Datorren maiatzean 19 urte beteko dituen usurbildar hau gailurretik gero eta gertuago

dago, 20 urtez azpiko selekzioan, punta puntako jokalarien artean egon da David; Alaveseko Gerard eta Bartzelonako Xavi, besteak beste.

Halere, berak nahiago du kontu hau guztia lasai-lasai hartzea. Asensiok urrun ikusten du gailurra eta hala hobe, "gero eta gorago igo, kolpea latzagoa baita" bere ustez.

Bitartean, Athleticeko 3. mailako taldean dihardu buru belarri. Denboraldi ona egiten ari da David Baskonian, 11 golekin taldeko golegile onena delarik.

Segi, ba, bide beretik eta zorte on! Aupa David!

2. nazionaleko Usurbil K.E igoera fasera

Usurbil K.Eko 2. nazional mailako eskubaloitaldeak, bere 30 urte inguruko historian zehar lehenengo aldiz, 1. mailara igotzeko fasea jokatu du. Pasa den martxoaren 28an jokatu zuten ligako azken partiduan 28-26 irabazi zioten Ereintzari eta bigarren postuan mantentzea lortzean, Galiziako Carvhallo herrian jokatu den igoera fasean parte hartuko dute Jose Lorentzok entrenatutako mutilek.


Apirilaren 23, 24 eta 25ean jokatu da igoera fase hau eta aurkariak ez zira nolanhikoa izango. Galiziako, kantabriako eta Asturiaseko txapelak izango dituzte aurrez-aurre. Ea ba zortea izaten duten!





KORR

Pasa den martxoaren 11ean amaitu zuten... nago, ordea, gure artean izan genituen hamarrak alderako Usurbilen gure dako hainbat kilometro eta hainbat kilometro en Ramon Labaienen testuak zioen b... gurela



blean

RIKA 11

en Korrika 11 Donostian. Ordu batzuk lehen. Atzerapenarekin bada ere, goizeko Korrika 11. Bidean utzi zituen herrian eginkurako aldaketa. Lekukoaren barruan zegoenezala: "geroak ez dezala esan euskaldunok euskara erail".



Leondik Usurbila beldurrez etorri nahi ez

Leon aldean, baten batzuek, Usurbilen kalean metraitlekin ibiltzen garela uste dute. Horixe komentatu zien Leongo abesbatza bateko zuzendariak Zumarte Musika Eskolakoei. Leongo ikastetxe publiko bateko abesbatzak apirilaren 16an etorri behar zuten Usurbila, geru Zumartekoak maiatzean harantz joateko, baina ez da horrelakorik gertatuko. Abesbatza osatzen zuten 60tik 35 haurrei gurasoek ez die Usurbila etortzeko baimenik eman, kalean metraitlekin ibiltzen omen gara eta.

Herriko haur eta gazte askoren ilusioa bertan behera gelditu zen martxoaren 23an Zumarteko haurren abesbatza eta Leongo ikastetxe publiko bateko abesbatzaren arteko trukaketa bertan behera gelditu zela jakin zutenean. Dena prest zuten, hango abesbatzak apirilaren 16an etorri behar zuten Usurbila asteburua pasatzera (hemengo haurren etxeetan lo egin behar zuten), eta Zumartekoak maiatzaren 7an joatekoak ziren (hango haurren etxeetan lo egin).

Azkenean, ordea, gauzak okertu egin dira. Leongo abesbatza 60 haurrek osatzen bazuten ere, 25ek bakarrik jaso zuten hona etortzeko gurasoen baimena. Zergatik? Euskal Herriko egoera politikoa dela eta, beldurreratik, trukaketaren proiektu hau hankaz gora utzi dute. Hango abesbatzaren zuzendariak hemengoei esan dienaren arabera, hemen kalean metraitlekin ibiltzen garela uste dute

hango guraso askok eta horregatik ez die bere haurrei baimenik eman.

Dena lotuta zegoenean...


Leongo abesbatza honekin trukaketa egiteko ideia hango abesbatzaren zuzendaria eta Zumartekoa ikastaro batzuetan ezagutu zirenean sortu zen. Inaki Mujikaren esanetan "guri oso ondo iruditu zitzaigun eta irailen egiten den plangintzan elkartrukaketa hau egitea aurreikusitu genuen". Ideia hura aurrera eramateko pausoak eman eta dena lotuta zuten. "Autobusaren aurrekontua eskatu, afariak, bazkariak zehaztu... gure aldetik inolako arazorik ez zegoela ikusi genuen. Gurasoen jarrera ere oso ona izan zen gainera. Leongo haurrak beren etxeetan hartzeko prest zeuden".

Orain dela hilabete, ordea, gauzak okertzen hasi ziren. Leongo abesbatzako zuzenda-

riak zenbait gurasok, Euskal Herrian zegoen gatazkagatik, bere seme-alabei Usurbila etortzen ez ziela uzten esan zien Zumartekoei. "60 haurreko korua 30 inguruan gelditu zen. Leongo guraso batzuekin hitz egiten ere saiatu ginen, baina ez zen posible izan". Honela, martxoaren 23an, azkenean ez zetoztela esan zitzaizkien Zumartekoei. Abesbatzen federazioan esan zaienez abesbatzen arteko trukaketa honelako arrazoiengatik bertan behera gelditzen den lehen aldia da.

Nahiz eta trukaketa saiakera hau gaizki ateratu, Zumartekoak ez daude geldirik. Abesbatzen federazioan trukaketa egin daitekeen abesbatzen zerrenda eskatu dute beste trukaketa bat antolatzen hasteko. Abesbatzako partaideen ilusioa bete dadin, errifan ateratako dirua non gastatu izango dute behintzat!

Josu Aranberri



P A T R I

J A T E T X E A


Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26


Telesforo Ardoak



Zure
mahairako
egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

Bazkideontzat abantaila gehiago!



Noaua! Kultur Elkarte bere sorreratik ahalgindu da bere bazkideei ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzen. Orain beste pasoa bat ematera goaz: bazkideok herriko denda eta jatetxeetan abantailak izango ditugu.

Herriko dendetan

Hitzarmena lotu dugun herriko dendak hauek dira: Aldatz Kirol denda (Atxegalde, 10), Mahuka Jantzidenda (Etxebeste, 3), Pauma Haur Jantziak (Kale Nagusia, 2), Truke Jantzidenda (Erdiko Kalea, 2) eta Usurbil Optikadenda (Zubiaurrenea, 10).

Lehenbiziko lau dendekin sinatu den hitzarmenak hau zehazten du: **Noaua! Kultur Elkarteko** bazkide orok denda horietan 10.000 pezetatik gorako erosketa egiten duten aldioro %10eko beherapena izango dute. Usurbil Optikadendan berriz, %10eko beherapena izango dute gure bazkideek eguzkitarako betaurrekoak edo/eta isurkariak erosten dituzten guztietan.

Beharpen kanpaina hau eten egingo da denda hauek berez izaten dituzten beherapen eta likidazio garaietan. Hauek pasatakoan jarriko da berriro indarrean kanpaina.

Herriko jatetxeetan

Antxeta jatetxeak (Eguzkitza, 4), Iguarte Sagardotegiak (Iguarte, 11, Txikiardi), Patri Jatetxeak (Nagusia, 6) eta Zumeta Jatetxeak (Txokoalde) sinatu dute hitzarmen hau. Jatetxe hauetan abantaila hau izango dugu **Noaua!**-ko bazkideok: batz bestea, mahaikide bakoitzak 2.500 pezetatik gorako otordua eginez gero %10eko beherapena egingo zaio mahai osoko

kontuari. Beherapena egitekotan, bazkidearekin doan lagun taldea 10 pertsonatik beherakoa izan behar du. Hortik gorakoa bada edo bakoitzaren otordua 2.500etik beherakoa bada ez da beherapenik egingo.

Jatetxeetan nahikoa da otordua egitera doan lagun koadrilan bazkide bat izatea beherapena egiteko.


Jatetxe hauetako batekin, bazkideren batek bere kabuz otordu berezia negoziatzen badu, kasu horretan ezin izango du abantaila hau aprobetxatu.

Kanpaina hau martxan jartzearekin batera bazkide guztiok xehetasun batzuk gogoan hartzea komeni da. Lehenbizi, argi eta garbi utzi nahi dugu kanpaina hau Noaua!-ko norbanakoentzat bakarrik dela, ez talde edo elkarte modura bazkide direnentzat. Hortaz, beherapena egitea nahi dugunero ezinbestekoa izango da bakoitzak bere bazkide txartel pertsonala erakustea. Eta txartelak ez du bazkide ez den beste batentzat balioko.


Bigarrenik, kanpaina honekin adostasuna agertu duten denda eta jatetxeetan txartel adierazgarri bat egongo da ikusgai: oraintsu banatu zaiuzuen bazkide txartel berriaren berdina, baina haundixeagoa. Beraz, txartel hori ikusten duzuen lekuetan aprobetxa dezakezue abantaila hau. Honekin batera beste edozein denda eta jatetxek kanpaina honetan sartu nahiko balu ateari beti zabalik izango lituzke. Baita sartu den batek atera nahiko balu ere.

Azkenik, **Noaua! Kultur Elkarteak** kanpaina hau bultzatzeko erreztasun guztiak eman dizkiguten denda eta jatetxeetako arduradunak eskertu nahi ditu. Bai gure eta bai dendari eta jatetxeetako arduradunen borondatea kanpaina hau urterik urte berritzea da. Hala bedi!





**Aitor Egileta
Arribilaga**



- Informatika ikaslea EHUn.
- Sagardo Egunaren Lagunak Elkarteko partaide.
- Usurbilgo dantza taldeko partaide.

Internet

Nork ez ote du sekula entzun internet hitza. Komunikabideetan, kalean, eskolan, lantokian, badirudi leku guzti horietan erabilgarria den erraminta dela. Baina ze demontre dugu ba interneta? Ezin hasiko gara zehazki elementu hau esplikatzen, baina gutxi gorabehera mundu guztiko ordenagailuak elkarren artean konektatzeko edo elkartzeko tresna dugu, sare erraldoia ere deitzen zaio. Lotura hau, gure etxeetara telefonoaren bidez iristen da.

Hala ere, ez dira denak abantailak. Lehen aipatu dudan bezala, interneta erabiltzeko telefono linea erabiltzen da eta gaur egun "Telefonica" enpresaren bitartez bakarrik egin dezakegu lotura hau. Orduan, erabiltzen dugunaren arabera faktura iritxiko zaigu etxera, eta hau oso garestia da; 300 pezeta inguru ordua egunez eta 130 pezeta gaueko 10etatik aurrera. Gainera, internetera konektatu ahal izateko zerbitzari batetara konektatzea beharrezkoa da. Honek, etxeko ordenagailua eta munduko beste ordenagailu guztien arteko zubi antzera jotzen du eta zerbitzu horregatik hileko 1.000 pezetatik gora kobratzen dizute normalean.

Ezin bukatuko dut gaurkoa interneten euskaldunon egoera aipatu gabe. Mundu guztian (edo ia guztian) erabili daitekeen tresna denez, bertan hizkuntza guztiek bizitzeko aukera dute. Hala ere, gero eta garbiago geratzen ari da hemen ere ingelese dela gehien erabiltzen dena, bai web orrietan, bai news-etan edota irc delakoan. Hizkuntza botoretsuek txikien eremua gero eta txikiagoa egiten ari dira, baina hemen ere arazoa ez da ingelesena edo eta erdaldunena, baizik eta norberak bere hizkuntza komunikatzeko erabiltzen ez duenarena. Web orri asko ikus-

ten dira hizkuntza batean baino gehiagotan idatzita, baina Euskal Herrian oso gutxi dira euskaraz irakurtzeko aukera eskeintzen dutenak Hizkuntza bote edo handiekiko eta txikiagoa egiten ari dira. Zergatik ote da hau? Ba betikoa, Web orrialde bat egiteak lana ematen badu, lan gehiago ematen du bi hizkuntzetan idatzi behar izateak, honek orri kopurua bikoiztu egiten baitu.

Konponbidea, ordea erraza da; euskaldunok euskara informazio sistema honetan garrantzi gehiago hartzea nahi badugu, ezinbestekoa da sare erraldoi hau erabiltzen hastea, izan ere, etorkizun hurbil batean garrantzia handiago hartuko du internetak gizartean eta euskaldunok bertan gure hizkuntzaz komunikatu ahal izatea nahiko baitugu orduan ere.

Gaur egun, azken azterketen arabera, penintsula mailan, Euskal Herria interneta gutxien erabiltzen den herrietako bat da. Eta zer esanik ez euskaldun nabe-gatzaileen datuak aztertzen hasten garenean. Katalunian ordea, sare hau oso hedatuta dago (penintsulako lehenengo postuan dago kokatuta erabilpenari dagokionez) eta bertako orri gehienek (ia denek ez esateagatik) katalana dute lehen hizkuntza.

Beraz, badugu nondik ikasia. Honekin ez dut jendea bultzatu edo animatu nahi interneta erabiltzera. Baina gaur egun telebistan edo irratan euskerazko programazioa edukitzea nahi dugun bezala, internetak garrantzi handiagoa hartzen duen egunean euskeraz nabigatu ahal izatea nahiko dugu. Hori lortu ahal izateko ordea ez dugu azken momenturarte itxoin behar. Zenbat eta lehenago hobe, ez duzue uste? Euskaldunontzat ez ote dago internetik?

Lehiaketa



Argazkian azaltzen diren hiru pertsonen izenak jakin nahi ditugu.

Asmatzaileen artean Patri tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Aurreko alean jarri genuen Zubietako plazan ateratako argazkikoak ezagutu dituzue batzuk. Bittor Enbil, Enrike Enbil, Joxe Iparragirre eta Dionisio Errekondo dira besteak beste. Erantzuna ondo eman duenez **Elias Sagardiak** izango du Tragoxkan afaltzeko aukera.

euskal preso guztiak gure artean behar ditugulako


apirilaren 24an, larunbata,

Herrera de la Mancha-ra goaz

Xabier Aranburu, "Xomorro",

bisitatzera

zatoz gurekin!




7 urte Euskal Herritik kanpo kartzelan



Autobusa antolatu dugu

Gure artera bilgunea

Irteera frontoi atzetik, larunbatean, goizeko 1.00etan. Itzulera larunbat gauean. Autobusa literaduna izango da. Izena emateko tokiak: Zendoia-enea, Patri, Txirigoba, Aitzaga eta Arrate Egoitza. Izena emateko azken eguna: apirilak 17, larunbata. Prezioa: 5.000 pta. - ikasle eta langabetuak dohain.



ileapaingintza

manikura

pedikura

depilazioak

masajeak

solarium-a

Intza ileapaindegia

Apirilatik aurrera atek zabal-zabal dituzu gure edergintza eskaintza dastatzeko. Ileapaingintza berria, eta gorputz zainketarako zerbitzuak: manikura eta pedikura, depilazioak, masajeak, eta baita solarium-a ere.

Den dena eskuragai, bertatik bertara, Kale Nagusia 8an, eta modu on askoan gainera. % 10aren beherapena 25 urtetik beherako gazteei eta **Noaia!**ko bazkideei!

Zure zain gaituzu!

Tel: 943 36 36 41



ileapaindegia

Kupela ama sagardoa amama



SÁIZAR




Kalezar, Tlf: 943 36 22 28
Igande gaueetan eta astelehen eguerdietan itxita

URDARRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91
Urtarrilaren 16an irekiko dugu.

AGINAGA




Aginaga, Tlf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

ARRAETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

IRUIN



Zubieta, Tlf: 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.